

Jamaica

# KINCAID

ALBERTO MARTÍNEZ DE LA CUADRA

## Nire amaren autobiografía

L I T E R A T U R A U N I B E R T S A L A



ALBERDANIA & erein & igela

JAMAICA KINCAID

*Nire amaren  
autobiografia*

Alberto Martínez de la Cuadra  
*Itzultzailea*

ALBERDANIA & erein & *igela*

Jatorrizko izenburua:  
THE AUTOBIOGRAPHY OF MY MOTHER

*Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.*

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

© 1996, Jamaica Kincaid

All rights reserved.

© Itzulpenarena: 2012, Alberto Martínez de la Cuadra

© Argitalpen honena: 2012, ALBERDANIA, EREIN eta IGELA  
argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

Ale kopurua: 800

ISBN: 978-84-9746-774-2

Legezko Gordailua: S.S. 1381/12

## HITZAURREA

ELAINE CYNTHIA POTTER RICHARDSON hogeita lau urtekoa zen 1973an, izena aldatzea eta Jamaica Kincaid bilakatzea erabaki zuenean. Bazuen zortzi urte New York hirira bidalia zuela bere familiak Antigua uhartetik, handik etxeko ekonomiari lagunduko ziolakoan lanean. Hasieran, bidali zuen dirua, baina laster utzi zion gehiago bidaltzeari, eta bere familiarekiko harremanak hautsi zituen. Izen aldaketa hori, Kincaidek aitortu duenez, askatze moduko bat izan zen nahi zuen guztia idatzi ahal izateko, behar zuen anonimotasuna emango baitzion bere idatzietan material oso pertsonala baliatzeko (esaterako, amaren eta alabaren arteko maitasun-gorrotoko harremanaren gai errepikaria). Britainiako hezkuntza sistema kolonialak markaturiko karibetar emakume baten identitate konplexua erakusten zuelako aukeratu omen zuen izen hori: Jamaica Kristobal Kolonek aurkituriko uharteren arawak izenaren (*Xaymaca*) ingeles deformazio bat da, eta “Kincaid”, ingeles mintzairako munduan oso zabaldua dagoen deitura bat, jatorriz eskoziarra. Izena aldatzeak familiarengandik eta Karibetik urrundu nahia erakusten badu, haren literaturan juxtu kontrako bidea hartzen du pertsonaiak eta narratzaileak izendatzeko moduak, askotan idazlearen edo beraren familiaren jatorrizko izen-abizenak izaten baitituzte: esaterako, *Nire amaren autobiografia* eleberri honetako narratzaileak Kincaiden amaren deitura du, Richardson. Izan ere, Kincaiden liburu guztiak oso autobiografikoak dira, egileak berak aitortzen duenez: “Egia

## *Jamaica Kincaid*

esateko, ez dut inoiz inori buruz hitz egin salbu eta neure buruari eta neure amari buruz... idaztea terapiatzat daukaten pertsona patetiko horietako bat naiz.”

Haren familiak 1965ean entzun zuen Kincaidentzat bazela aukera bat New Yorkera joateko eta haurrak zituen familia barentzat *au pair* aritzeko. Aitaordea gaixo zuen eta familia diru premian zen; ikasketak uztera behartu zuten lehenik, bere hiru nebaorde gazteagoak zaintzeko eta etxean laguntzeko, eta Estatu Batuetara bidali zuten geroago. Espero zuten Kincaidek handik mantenduko zituela gauzak hobetu arte. Kincaidek hamazazpi urtetan utzi zuen Antigua; 1986 arte ez zuen Antiguako bere etxea berriro ikusiko, hogeitun urte geroago.

New Yorkera iritsi zenean, *au pair* lanean hasi zen Michael Arlen *The New Yorkereko* idazlearentzat, beraren emaztearentzat eta beraien lau haurrentzat. Hiru urtez egon zen haiekin, eta ondoren *Lucy* eleberrian deskribatu zituen orduko esperientziak. Arlentarrentzat lanean ari zen bitartean, Kincaidek batxilergoaren mailako diploma bat lortu eta argazkilaritza eskolak hartu zituen, baina unibertsitate diploma bat lortzeko bere saialdian huts egin zuen, beka bat jaso arren. Gaizki ordaindutako lan batzuetan aritu ondoren, Kincaid beregain hasi zen idazle lanean, eta *Ingenue* aldizkarirako egin zituen artikulua batzuekin entzutea hartzen hasi zen hirurogeita hamarrekota hamarkadan; artikulua horietan, ospe handiko pertsonak elkarrizketatu zituen. Garai harexetan hartu zuen Jamaica Kincaid izengoitia.

Haren lehen istorio laburra 1974an argitaratu zuen *The New Yorker*en, eta 1995 arte aldizkariko idazle gisa egingo zuen lan bertan. *The New Yorker*en idaztea eskola ona izan zen Kincaidentzat: aldizkariko idazle gisa izan zuen arrakastak adorea eman zion fikzioan saiatzeko. *The New Yorkereko* “Talk of the Town” artikuluetan, asmazioa errealitatea bezain egiazkoa izan

zitekeela konturatu zen. “Egiazko” artikulua horietan, elkarrizketak eta pertsonaiak asmatu zituen, gertaerak moldatu zituen eta hirugarren pertsonako pertsonaia baten gisa sartu zuen bere burua. Bere hasierako fikzioan erabaki zuen bere bizitzari buruz idatziko zuela, egiazko gertaerak eta pertsonaiak berriro tankeratuz; modu horretan eginiko istorio laburrekin plazaratu zuen azkenean Kincaidek bere lehen liburua, *At the Bottom of the River* (1983). Hogeigarren mendearen bigarren zatian daude kokatuak liburua osatzen duten hamar istorioak, Antigua Karibeko uharte txikian, zeinetan alde batetik elkartzen baitira naturaren edertasuna eta, bestetik, gizarte-kontrol itogarria, pobrezia eta kolonizazioaren istorioa. Idazketaren tonua oso poetikoa da, sinbolismoz bete. Sentimendu konplexuak adierazten dituzten ahots asko aurkezten dizkio Kincaidek irakurleari. Karibeko bere haurtzaroko giroa birsortzen saiatzen da istorio horietan, estilo lauso eta experimental bat erabiliz eta ametsa eta errealitatea nahasiz gertakizunik gabeko narrazio batean. Bildumako lehen istorioa, “Girl”, ezagunena da beharbada. Ama batek bere alaba nerabeari emandako agindu sail baten moduan dago idatzia, eta neskaren ahotsak birritan baino ez du eteten agindu sail hori; istorioak pertsonaia indartsu bi sortzen ditu, eta kritikatzan du nola saiatzen den ama bere alaba moldatzen maila ertaineko andereño saxoi eredugarri bat bilaka dadin, alabaren nortasuna zapalduz eta galaraziz. Orri beteko istorio horrek argi erakusten du nolako gaiak erabiliko dituen bere ondorengo lanetan: norberaren familiaren barruko zapalkuntza eta menderatzea, amaren eta alabaren arteko maitasun-gorrito harreman korapilatsua, eta kolonizatuak bere kolonizatzaileen aurka darabilen botere politiko eta kultural arteko borroka.

## *Jamaica Kincaid*

JAMAICA KINCAID 1949ko maiatzaren 25ean jaio zen St. John's-en, Antigua uharteko hiriburuan. Karibeko uharte hori artean ere britainiar kolonia zen Kincaid bertan bizi izan zen urteetan. Kincaiden ama, Annie Richardson (ezkontzaz geroztik, Annie Drew) Dominika uhartean jaio zen eta gaztetan Antigua uhartera aldatu zen. Kincaiden aita biologikoa, Roderick Nathaniel Potter, Antiguako taxilari bat zen, emaztea eta alaba laster bertan behera utziko zituen. 1982an, Kincaid orduko idazle ospetsua zenean, aita biologikoa agertu zitzaion New Yorkeko apartamentuan, baina Kincaidek uko egin zion "aita" deitzeari. Aitari gaitzitu zitzaion alabak batere interesik ez erakustea inoiz ezagutua ez zuen aitarengan. Ez zuen inoiz berriro hitz egin aitarekin. Mendebaldeko Indietako gizonen adibide tipikoa dela adierazi du Kincaidek inoiz hari buruz: haurrak izaten dituzte, baina ez dute inoiz loturarik izaten haur horiekin. Kincaiden laugarren eleberriak *Mr. Potter* (2002) du izena. Izenburuko Mr. Potter hori flirtean ibiltzea gogoko duen Antiguako auto gidari bat da, bizitzan zehar lasai eta kezkarik gabe dabilen gizon bat bezala deskribatua. Narratzaileak Elaine Potter Richardson du izena, egileak bezala, eta Mr. Potter, berriz, narratzailearen aita da. Izan ere, errealitatea eta fikzioa bereizten diren mugan ari da Kincaid eleberri honetan. Narratzailearen gertaera asko bat datoz Kincaiden esperientziekin. Liburua ez da, hala ere, Kincaiden aitaren biografia edo historia. *Nire amaren autobiografia* bezala, fikziozko istorio bat da: narratzaileak irudikatu egiten du nolakoa izango zen bere aita. Tonua oso poetikoa da eta zaila da generoa definitzen. Haren oroitzapenetan sartzen garen neurrian, lausotu egiten dira denbora eta espazioa. Estilo zirkularra erabiltzen du metafora indartsuekin eta errepikapen askorekin.

Lehen eleberria, ordea, urte batzuk lehenago idatzi zuen, 1985ean: *Annie John*. Alderdi askotan *At the Bottom of the River*en

## *Nire amaren autobiografia*

azterturiko gaiak, motiboak, irudiak eta ideiak garatzen ditu bertan: bizitza eta heriotza, galera eta dolua, ama eta alaba, haurtzaroa eta helduaroa. *At the Bottom of the River* bezala, *The New Yorker* aldizkarirako istorio eta zirriborro sail bat bezala hasi zen *Annie John*. Aldizkarian argitaratu ondoren, banako artikuluak bildu eta eleberraren barruan editatu ziren. Kritikariek oso begitarte ona egin zioten eleberrari honen argitalpenari.

Antiguan hazten den neska baten lehenbiziko azterketa luzea da *Annie John*. Gai horretara itzuliko da geroago ere beste lan batzuetan. Testuak Annieren hazkundera jarraitzen dio, helduarora iristeko prozesuari buruzko eleberrari bat da. Hala ere, Kincaidek osagai bereziak eranstean dizkio europar zurien *bildungsroman*aren tradizioari (genero hori Charles Dickens, James Joyce eta Mark Twain bezalako idazle gizonezkoek lotua egon da sarri). Kincaidek gai eta eduki bereziak aztertzen ditu, bere testuak bereizten dituztenak idazle genero horren eduki gizonezko, europar edo iparramerikarretik. Izan ere, genero horren birlantze baten gisa irakur daitezke Kincaidek Karibeko bizitzari ematen dion tratamendua, ama-alaba harremanak, sexu-garapena eta europar inperialismoaren kritika. Kincaidek esan du bere interesik handiena boteretsuaren eta botere gabearen arteko harremana aztertzea dela. Hori egiten du, alde batetik, gurasoen eta haurren arteko eta, bereziki, amen eta alaben arteko harremanak aztertuz eta, bestetik, ama/herrialdearen eta alaba/koloniaren arteko harreman koloniala kontuan hartuz. Askotan, lan bakar batean konbinatzen dira gaiak; esaterako, *Annie John* eleberrak amaren eta alabaren arteko intimitatetik banantzerainoko bilakaera erakusten du, alde batetik, eta, bestetik, bere burua lotura kolonialetatik askatu beharraren kontzientzia hartzearen kronika ere egiten du. Gai autobiografikoak ere sartzen ditu. Estilo arina eta



## *Jamaica Kincaid*

koherentea darabil, albo batera utzirik *At the Bottom of the River*en zeuden zatikatzea eta surrealismoa.

*Lucy* (1990), Kincaiden bigarren eleberria *Annie John*en jarraipentzat jo da askotan. Protagonistaren izena Annie izatetik Lucy izatera igaro da, baina Kincaiden lehenbiziko eleberria amaitzen den lekuan hasten da bigarrena: *Annie John* abiatze batekin bukatzen da, eta *Lucy* heltze batekin hasten da. *Lucy*ko hasierako eszenak lehen pertsonako narratzailea deskribatzen du, Antiguako nerabe bat, Iparramerikako hiri izengabe batera iristen dena. Hala ere, gehiegizkoa litzateke *Lucy Annie John*en jarraipen huts gisa definitzea. Alderdi batzuetan oso antzekoak dira, baina oso desberdinak dira beste batzuetan; esaterako estiloari eta egiturari dagokienez. *Annie John* joria eta deskriptiboa da; *Lucy*, berriz, arinagoa da, zatikatuagoa. *Annie John* kronologikoki mugitzen da umearen bizitzako gertaeretan zehar, gai nagusiak irudiz eta metaforaz azpimarratuz; *Lucy*ko narrazioak uko egiten dio kronologiari, eta atzera eta aurrera mugitzen da, irtenbide edo amaiera argirik eman gabe. Are gehiago, eleberri bietako pertsonaia nagusia berezia da. Annie bizia, jakin-nahia eta konprometitua da; *Lucy*, berriz, gogoe-tatsuagoa eta kritikoagoa da.

Matxinadaren gaia espresuki aipatzen da *Lucy* eleberrian. Luzifer goiaingeru matxinoaren izenaren laburpena da eleberriko protagonistaren izena. Pertsonaia haserre bat da, bere amaren, bere ondare kolonialaren, bere uhartearen eta goi-erdiko klaseko bere enplegatzaile zuri amerikarren aurka matxinatzen dena. Estatu Batuetara joanik, britainiar kolonialismoari loturiko kultura inperialistaren eta arrazistaren beste modu bati egiten dio aurre. Eleberriak bost kapitulutan deskribatzen du nolako eragina duen kolonialismoak New Yorkera doan Karibeko emigrante baten nortasunean. *Annie John* bezala, nortasunaren

## *Nire amaren autobiografia*

eraketarekin oraindik borrokan ari den nerabe bat da Lucy, baina Annie helduarora iristeko prozesu bat bizitzen ari den bitartean, Lucy immigrante bat da bi mundu eta bi mundu ikuskera adosteko borrokan ari dena.

1999an, *My Garden (Book)* argitaratu zuen Kincaidek, lorategiei buruzko saiakera luzeen sail bat, estilo eta gai aldetik beraren aurreko liburuetatik bereizten dena. Idazleak lorezaintzarako duen grina aitortzen du, baina, aldi berean, bestelako gai batzuetara ere lerratzen zaizkio gogoetak: esklabotza, kolonialismoa eta behe klaseen nahigabe itogarriak. Kincaidek zuzeneko lotura ezartzen du baratzezaintzaren eta konkistaren artean. Izendatzeak ezartzen du lotura hori, izen batek gauza izendatua sailkatuz hornitzen baitu esanahiz. Konkista unean, Karibe hitz eta gauza eremu arbitrario bat bilakatu zen. Idazleak kritikatzeko du nolako premia sentitzen duten konkistatzaileek gauzen eta herrien izenak aldatzeko. Kincaiden arabera, lorezainen deserrotze-, birlandatze-, hibridatze- eta hazte-ekimenak kolonizatzailearen proiektuaren antzekoak direla. Gainera, uste du klase kolonizatzaile bateko kideek bakarrik izango zituztela aurreko mendeetako lorategi landuak egiteko aisia, aberastasuna eta aukera.

Galera da Kincaiden literaturaren gai nagusietako bat. Kincaiden pertsonaiek galera pairatzen dute. Denek dute paradisu galdu bat: haurtzaroko pozaren paradisu galdua eta erbesteratzean atzean utzitako uharteko paradisu galdua. Antiguak ere, Karibeko beste uharte batzuek bezala, galera pairatu dute bere esperientzia kolonialaren ondorioz. Britainiarrek jatorrizko karibe eta arawak indiarrak deuseztatu zituzten eta ondoren ezin konta ahala afrikar bertara eraman, esklabo egin eta hil zituzten beren azukre sailak langilez hornitzeko. *A Small Place* (1988) liburuan, “umezurtzak” deitzen die Kincaidek Karibeko

## *Jamaica Kincaid*

biztanleei, aberririk gabeko, maitasunik gabeko, berea den hizkuntza gabeko jendea. *Annie John* eta *Lucy* fikzioa eta ez-fikzioa nahasten dituzten testutzat jo daitezkeen bezala, *A Small Place* hizkuntza poetiko indartsuz, sinbolismoz eta metafora konplexuz hornitua dagoen ez-fikziozko testutzat jo beharra dago. Laurogei orriko saiakera honek lau ataletan banatua dago, eta autobiografiarekin eta inperialismoaren historiarekin nahasten ditu gizarte- eta kultura-kritika, Antigua koloniala eta postkoloniala deskribatzeko. Estilo zorrotz eta liriko batez, Kincaidek tolesik gabe aztertzen du nolako eragina izan duten esklabotzak eta turismoak bera hazi zen uhartean. Liburuak zuzenean hitz egiten die Antiguara eguzkiak, hondartzek eta Karibe itsasoak eskainitako ihes-nahiaren bila Antiguara bidaiatzen duten amerikar eta europar turistei. Kincaiden iritziz, bidaiari horiek betikotu egiten dituzte beren arbasoek erabilitako esklabotza eta inperialismoa; ez beltzak katez loturik edukiz, baizik eta anti-guarrak girgiluz turismoari lotuak edukitzen dituen ekonomia bati lagunduz. Kincaidek, beraz, kolonizazioan eta ekonomia-inperialismoan blokeatuak ikusten ditu oraindik Antiguako herritarrak. Estiloari eta formari dagokienez, liburu berezia da, deskontent eta haserre adierazpen bat da.

Robert Gottlieb orduko editoreak erabaki zuen ez zuela *A Small Place* argitaratuko *The New Yorker*en. Haren iritziz, liburuaren tonua haserregeia eta gogorregia zen aldizkariaren irakurle gehienbat zurientzat. Farrar, Straus and Giroux argitaletxeak saiakera liburu gisa argitaratu zuenean, kritikari zuri talde batek eraso zion liburuari, arrazoirik gabekotzat jotzen zituelako Kincaiden mingostasun eta haserre adierazpenak.

Kolonizatzaileei ez ezik, jarduera postkolonial askori erasotzen die Kincaidek, kolonizatzaileek sartutako esplotazioarekin eta ustelkeriarekin jarraitzen baitute. *A Small Place*

liburuak gogor kritikatzten du Antigua turismo-zentro bezala bakarrik ikusten duen turista zuria, baina Antiguako beltza ere kritikatzten du uharteko arazo politiko, sozial eta ekonomiko ugariengatik.

*My Brother* (1997) Jamaica Kincaiden bigarren liburu ez-fikziozkoa da. Lan autobiografiko honek aurreko lanetako gai asko aztertzen ditu. Liburuak kontatzen du nolako borroka erabili zuen Kincaiden nebaorde batek, Devon Drewek, HIES birusarekin, eta nola hil zen azkenean 1996an. Testuak Devonon sufrimendua deskribatzen du zati handi batean, baina badira, hala ere, beste zati asko kontatzen dutenak nolako harreman gatazkatsua izan zuen Jamaica Kincaidek bere amarekin, nolako oroitzapenak ekartzen zizkion eta nolako hausnarketak eragiten zizkion Antigua uharteak bere nebaordea zaintzera hara joan zenean. Narrazioak aurrera egin ahala, Kincaiden bizitzari buruzko xehetasun asko azaltzen dira, esaterako, Vermonteko bere etxeari eta hurrei buruzkoak, edota bere senar Allen Shawn-en aldera sentitzen duen maitasun handiari buruzkoak. Pasarte batzuetan, lorezain amorratua bezala deskribatzen du bere burua, beste batzuetan bere beste bi nebaordeekin duen harremana azaltzen du (haiek ere nahiko harreman zaila baitzuten beren amarekin). Kincaidek ez zuen egiaz ezagutzen HIESak jota hiltzen ari zen bere nebaordea. Ume txikia zen Kincaid uhartetik joan zenean, eta hogeitaz urtez ez zuen batere harremanik izan berarekin.

*My Brother* goraiatu eta gaitzetsi egin dute kritikariek. Liburuari buruzko kritika negatiboak idatzi dituzten kritikariek Kincaidi egozten diote bere bizitzan jartzen duela arreta handiagoa nebaren gaixoan eta heriotza goiztiarrean baino. Kargu hartzen diote begiratu batean Devonon biografia dirudien liburu batean ez delako haren bizitzaz bakarrik aritzen. Izenburua apur

## *Jamaica Kincaid*

bat engainagarria da, liburuaz ez baita, berez, Kincaiden nebaordeari buruzkoa; izan ere, aurreko lanak bezala, genero harremanei, sexualitateari, botereari eta amatasunari buruzko hausnarketa bat da. Liburuaren sumina eta mingostasuna ere kritikatu dira. Pasarte batzuetan, kolonialismoaren operazioekin alderatzen ditu HIESaren inbasioa eta suntsipena, baina antiguarrak ere kritikatu ditu beren homofobiarengatik eta sufritzen ari diren biktimen aldera erakusten duten bihozgabetasunarengatik.

JAMAICA KINCAIDEN *Nire amaren autobiografia* 1996an argitaratu zen. Egilea bost urtez aritu zen lanean eleberri honetan. Dominika uhartean dago kokatua, Kincaiden ama jaio zen uhartean, eta Xuela Claudette Richardson du protagonista nagusia, ama karibe baten eta aita erdi eskoziar erdi afrikar baten alaba. Xuelaz erditzean hiltzen da Xuelaren ama, eta horren ondorioz amarik gabe hazten da, aitari arropak garbitzen dizkion emakumearen ardurapean. Kontakizuna Xuelaren lehen pertsona egiten da eta horrela aletzen dira haren haurtzaroko usteak, eskolaume zenean seduzitua izateko esperientzia, zamaketari batekin izaniko amodio kontua, eta ingeles mediku batekiko ezkontza. Gertaera horien erdian, bere amaren historiaren ezagutza bilatzen du Xuelak etengabe. Bilaketa hori obsesio moduko bat bilakatzen zaio, eta sekula ikusi edo hitz egin ez duen bere amaren deskripzioa osatzen saiatzen da. Irudimenaz baliatzen da, beraz, bere amaren sentipenen eta pasioen irudiak gogora ekartzeko. Irudikatzen du noiz ezagutu zuen amak aita lehen aldiz, eta harreman hori nola bilakatu zen maitasun. Istoria bat ere eraikitzen du, eta hiltzen ari den arraza baten parte bat da haren ama istorio horretan; karibearen arraza da hura, kultura eta hizkuntza galtzeko bidean dituen.

## *Nire amaren autobiografia*

*Nire amaren autobiografia* 1997ko National Book Critics Circle sarirako finalista izendatu zen fikzio sailean. Eleberriari buruzko kritikak positiboak izan ziren orokorrean, nahiz eta kritikari batzuek esan zuten kontakizunak ez zuela itxaropen edo optimismo handirik etorkizunari begira. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da narrazio formaren konplexutasuna. Eleberriak 192 orrialdeko bakarrizketa bat hedatzen du prosa ezohiko eta iradokitzaile batean. Testua estilo zuzenik gabekoa da eta ez dago aipu edo elkarrizketa-lerro bakar bat ere. Horren orde, irakurleak hirurogeita hamar urteko Xuelaren ahotsa entzuten du, bere bizitza gogora ekartzen duenean eta bere estualdiak kontatzen dituenean kementsu eta emozioz beterik.

Pertsonaia gisa, Kincaiden irudipenaren produktua da Xuela. Testuko mundu irudikatuaren eta Kincaiden bizitzako mundu errearen artean ere mugitzen da nolanahi ere. Azken batean, errealitatea eta fikzioa nahasten dituzte Kincaiden liburuek beti, eta eleberri hau ez da salbuespena. Elkarrizketa batean Kincaidek esana du Xuelaren istorioa “autobiografikoa dela ideietan, baina ez egoeretan”. Eta adierazpen hori argitzeko esaten du testuak bere amaren eta amonaren bizitzetatik hartzen dituela elementuak, eta elkarrekin bilbatzen dituela, bere amaren aldeko familiarren historia irudimentsu bat sortzeko. Kincaiden ama Annie Richardson bezala, Dominika uhartekoa da Kincaiden narratzailea, Xuela Claudette Richardson; zati batez karibe indiarra da, zati batez afrikarra, eta zati batez eskoziarra; eta Kincaiden amaren familiarren deitura du, Richardson. Bere amak kontaturiko *obeab* istorioak ere sartzen ditu bere pertsonaiaren bizitzan: nola *jablesse* batek tximino baten forma hartu eta harri bat jaurtiz erasotzen dion; nola *obeab* sorginkeria batek Xuelaren nebaren heriotza eragiten duen eta har bat irteten zaion hankatik hiltzen den une berean; edota nola mutil bat itotzen den hazita doan erreka batean *jablesse*

## *Jamaica Kincaid*

batek beregana erakartzen duenean errekaen alderdi sakonean bainatzen ari den emakume eder erakargarri baten gisa agertuz. (*Jablesse* frantses kreolerazko hitz bat da, frantses estandarrean *diabliesse* esaten dena; oso emakume ederra da eta haren apatx bikoitzetik ezagun da deabruzkoa dela.)

Badira kritikari batzuk Kincaiden eleberriaren izenburuari harrigarri irizten diotenak; izan ere, Kincaiden *Nire amaren autobiografia* ez zaie autobiografiaren ohiko genero konbentzioei egokitzen, ez baitu aurkezten aldi berean narratzailea, pertsonaia eta figura historikoa den idazle bat. Lehen pertsonako bakarrizketa batean hitz egiten duen fikziozko pertsonaia batengan jartzen du testuak arreta, eta bakarrizketa horren bitartez helarazten da pertsonaien arteko ahozko komunikazioa. Kincaidek azaltzen du britainiarren mendeko Mendebaldeko Indietako emakume mota jakin baten bizitza idaztea zela bere asmoa, eta, bere bizitza edo bere belaunaldia izan ez arren, eleberrian autobiografikoa zirudien ahots batez esan nahi zituela gauzak. Xuelak bere ama bilatzen duenean, bere burua bilatzen du, nor den, nondik datorren eta nora doan jakiteko modu bat baita “autobiografia” hori. Azken batean, Xuela bere existentziari buruzko erantzunen bila ari da. Kincaiden arabera, autobiografiaren tradizioa nork bere bizitzari buruz hitz egitea da, baina beraren aurretik izan diren emakume-bizitza guztiak beraren parte dira, eta horregatik dira beraren bizitza, beraren biografia, nahiz eta hertsia-hertsian hala ez izan. Kritikari batzuen iritziz, afrikar diasporaren metafora bat bezala irakur daiteke Xuelaren bizitza; izan ere, afrikarrak mundu horretan sartu ziren unean, hil zen Afrika haientzat. Bataren jaiotza bestearen heriotza da.

*Alberto Martínez de la Cuadra*

Bermeon, 2012ko maiatzaren 25ean

JAMAICA KINCAID



*Nire amaren  
autobiografia*

*Derek Walcott-entzat*



NI JAIO NINTZEN UNEAN hil zen nire ama, eta horregatik ez zen nire bizitza guztian deus ere izan ni eta betikotasunaren artean; haize latz eta beltz bat izaten zen beti nire atzean. Bizitzaren hasieran ez neukan hori hala izango zela jakiteko modurik; bizitzaren erdialdean bakarrik jakin nuen hori, jadanik gazte izan ez eta konturatu nintzenean gutxiago nituela lehenago ugari izan ohi nituen gauza batzuetatik, eta gehiago, berriz, ozta-ozta izanak nituen beste batzuetatik. Eta zer nuen irabazirik eta zer galdurik konturatzeak atzerantz eta aurrerantz begira jarri ninduen: nire hastapenean, aurpegia inoiz ikusia ez nion emakume hori zen, baina nire amaieran ez zen ezer ere, inor ere ez ni eta munduaren espazio beltzaren artean. Gogoak eman zidan orduan amildegi baten ertzean egona nintzela zutik neure bizitza guztian, galdu nuenak zaugarri, gogor eta babesgabe egina ninduela; horretaz konturatzeak tristuraz, lotsaz eta neure buruaren alderako errukiz bete ninduen.

Nire ama hil zenean, ni, haur txiki bat, babesgabe utzirik mundu osoaren aurrean, aitak hartu, eta bere arropak garbitzeko ordaintzen zion emakumearen kargu utzi ninduen. Posible da emakume horri azpimarratu izana zein alde zegoen bi farde-len artean: bata beraren haurra zen, ez munduan zuen haur bakarra, baina bai ordu arte emaztetzat hartua zuen emakume bakarrarekin zuen haur bakarra; bestea beraren arropa zikinak ziren. Bata bestea baino eztikiago erabiliko zuen, jarraibideak

emango zizkion bataz besteaz baino kontu handiagoz arduratu zedin, esperoko zuen bata bestea baino ardura handiagoz erabiliko zuela, baina bietatik ez dakit zein, oso gizon buru-iritzia zelako, bere itxura oso garrantzitsua zen berarentzat. Badakit zama bat nintzela berarentzat; badakit arropa zikina zama bat zela berarentzat; badakit ez zekiela nola egin bera bakarrik nire kargu, edo nola garbitu berak bere arropak.

Oso etxe txikian bizi izana zen nire amarekin. Pobrea zen, baina ez ona zelako; artean ere ez zituen aski gauza txar eginak aberasteko. Muino batean zegoen etxe hori, eta muinotik behera jaitsia zen oinez esku batean bere haurra zekarrela kulunkan, eta bestean, arropa, eta emakume bati emanak zizkion biak, fardela eta haurra. Ez zen beraren senitartekoa, ez nire amarenkoa; Eunice Paul zuen izena, eta orduko bazituen sei haur, azkena artean besoko umea zen. Horregatik bazuen bularrean esne apur bat niri emateko, baina mintasun gustua zuen nire ahoan, eta ez nuen edaten. Beste etxeetatik urrun zegoen etxe batean bizi zen, eta itsasoaren eta mendien ikuspegi zabala zegoen handik, eta, haserre eta kontsolatu ezinik nengoenean, arropa zaharren gainean bermatu eta arbola baten gerizpetan uzten ninduen eta, itsaso hura eta mendi haiek ikusirik, hain errukigabeak, negarrez urtzen nintzen.

Ama Eunice ez zen zakarra: bere haurrak tratatzen zituen bezalaxe tratatzen ninduen ni, baina ez du esan nahi horrek atsegina zenik bere hurrekin. Hau bezalako toki batean, basakeria da egiazko oinordetza bakarra, eta ankerkeria da batzuetan gogo onez ematen den gauza bakarra. Emakume hori ez nuen gogoko, eta faltan botatzen nuen inoiz ikusia ez nuen aurpegia; inor ote zetorren begiratzen nuen sorbalda gaintetik, inor etorriko zela espero banu bezala, eta zeren bila ari nintzen galdetzen zidan Ama Eunicek, hasieran txantxetan bezala, baina denbora baten

buruan, hori egiteari uzten ez bainion, pentsatu zuen horrek esan nahi zuela espirituak ikusteko gauza nintzela. Nik ez nuen batere espiriturik ikusten, aurpegi hura bilatzen nuen bakarrik, inoiz ikusiko ez nuen aurpegia, betiko bizirik iraungo banu ere ikusiko ez nuena.

Ez nuen inoiz ere maitatu aitzak nire kargu eman zion emakume hori, nirekin zakarra ez zen emakume hori, baina atsegina ere ezin izan zitekeena, ez zekielako nola izan atsegina; eta beharbada ezin nuen maitatu nik ere ez nekielako nola. Janaria iragazkitik igaroarazita ematen zidan beraren esnea edaten ez nuenean eta artean ere hortzik ez nuenean; hortzak irten zitzaizkidanean, jaten ematen zidan bitartean, beraren eskuan hortzak sartzea izan zen egin nuen lehenbiziko gauza. Hots txiki bat irten zitzaion ahotik, minarengatik baino gehiago ustekabearengatik, eta ezagutu zuen egiaz zer zen hori —esker txarraren nire lehen agerraldia—, eta nire aurrean erne jarrarazi zuen elkarren ezaguera izan genuen denbora guztian.

Lau urte bete arte ez nintzen hizketan hasi. Ez zion horrek zoriontasun minuturik galarazi inori; nolana ere, ez zen inor horretaz kezkatuko. Banekien hitz egiteko gauza nintzela, baina ez nuen nahi. Hamabostean behin ikusten nuen aita, bere arropa garbiak jasotzera etortzen zenean. Ez nuen inoiz pentsatu ni ikustera etortzen zenik; bere arropa garbiak jasotzera etortzen zela pentsatzen nuen. Etortzen zenean, beraren aurrera eramaten ninduten, eta nola nintzen galdetzen zidan, baina formalitate hutsa zen; inoiz ez ninduen ukitzen edo begietara so egiten. Zer zegoen ikusteko nire begietan? Arropak garbitzen, lisatzen eta tolesten zizkion Euniciek; opari baten moduan egoten ziren nankinezko oihal garbi baten zati bitan bilduak, mahai batean ezarriak, etxean zen mahai bakarrean, aita noiz etorriko eta jasoko zain. Haren bisitak nahiko erregularrak izaten ziren, eta

horregatik, ohi bezala agertu ez zenean, konturatu egin nintzen. Esan nuen, “Non da aita?”

Ingelesez esan nuen –ez frantziar kreoleran ez ingeles kreoleran, ingeles naturalean baizik– eta hori izan behar zatekeen ustekabea: ez hitz egin izana, baizik ingelesez hitz egin izana, inori ez bainion entzun hizkuntza horretan hizketan. Ama Euniccek eta bere haurrek Dominikako hizkuntzaz hitz egiten zuten, frantziar kreoleraz alegia, eta, nire aitak hitz egiten zidanean, hizkuntza horretan egiten zuen hark ere, ez begirunerik ez zidalako, baizik uste zuelako ez nuela besterik ulertzen. Baina ez zen inor konturatu; azkenean hitz egina nuelako eta neure aitaren absentziaz galdetua nuelako bakarrik miraritu ziren. Esan nituen lehenbiziko hitzak inoiz gogokoa edo maitea izango ez nuen jende baten hizkuntzakoak izatea, hori ez da orain misterio bat niretzat; nire bizitzan ezin askatuzko moduan neuri lotua dagoen guztia, ona nahiz txarra izan, oinaze iturri da.

Lau urte nituen orduan, eta elkarri loturiko marra meheen sail baten gisa hautematen nuen mundua, ikatz-ziriz eginiko zirriborro baten gisa; eta, horrenbestez, aita etorri eta bere arropak eramaten zituenean, ez nuen besterik ikusten salbu eta nola agertzen zen bat-batean errepede nagusitik ni bizi nintzen etxeko atea bitarteko bidexkan, eta nola ondoren, bere egitekoa betetakoan, ezkutatu egiten zen errepedea hartzen zuenean bidexkarekin elkartzen zen tokian. Ez nekien zer hedatzen zen bidexkaz harago, ez nekien nire begien bistatik alde egiten zuenean nire aita izaten jarraitzen zuen, edota beste zerbait erabat desberdin bilakatzen zen eta ez nuen gehiago ikusiko nire aitaren forman. Onartu egingo nukeen hori. Azkenean sinetsiko nukeen halakoxea dela mundua. Nik ez nuen hitz egiten, eta ez nuen hitz egingo.

## *Nire amaren autobiografia*

EGUN BATEZ, nahi gabe, plater bat hautsi nuen, Eunicek inoiz izana zuen era horretako plater bakarra, portzelana txinatarrez eginiko plater bat, eta “Sentitzen dut” hitzek ez zuten nire ahotik irten nahi izan. Galera horregatik azaldu zuen goibeltasunak liluratu egin ninduen; hain zen nahigabez betea, hain kontsolaezina, hain sakona, maite den pertsona baten heriotza gertatu balitz bezalakoa. Bere sabela zen zorro lodiarri heldu zion, ileetatik tiraka jardun zuen, bularra jo zuen; malko handiak irten zitzaizkion begietatik, eta irristan erori masailetan behera, eta hain ugariak izan ziren, non, ur iturri berri bat sortu balitz haietatik, mito edo maitagarrien ipuin batean bezala, neu nintzen txiki hura ez baitzen harrituko. Behin eta berriro ohartarazia zidan ez nuela plater hori ukitu behar, jakin-min obsesibo batez ikusi baininduen berari begira. Berari begiratzen nion, eta azalean margotua zuen irudiari buruz galdetzen nion neure buruari; aire zabaleko zelai bat zen, belar eta loreekin, hori, arrosa, urdin eta berdeen tonu finenetan; zeruan, eguzki bat zen ageri, argi egiten zuena, baina ez erretzen; hodeiak meheak ziren eta sakabanatuak zeuden apaingarri gisa, ez lodiak eta matazatuak, ez hondamendi baten zantzuak. Zelai bat, belarrez eta lorez betea egun eguzkitsu batean, besterik ez zen irudi hori, baina bazuen, halere, ezkutuko joritasun, zoriontasun eta baretasun giro bat; beheko aldean, hitz bakar bat zegoen urrezko letraz idatzia, ZERUA. Jakina, ez zen erabat zeruaren irudi bat; Ingalaterrako landa zabal idealizatuaren irudi bat zen, baina nik ez nekien hori, ez nekien Ingalaterrako landa zabalaren moduko zerbait bazenik ere. Ezta Eunicek ere; berak uste zuen margo hura zeruaren irudi bat zela, kezkarik, ardurarik edo gabeziarik gabeko bizitza baten ezkutuko promesa egiten ziona.

Irudi hori margotua zegoen portzelanazko plater hori hautsi nuenean eta Ama Euniceri hainbeste negar eginarazi, ez nintzen

berehala atsekabetu, ez nintzen handik gutxira atsekabetu, askoz geroago baizik ez nintzen atsekabetu, eta orduko beranduegi zen hari esateko, hila zen; agian, joan zen zerura, eta bete zen platerean zegoen promesa. Platera hautsi nuenean eta sentitzen nuela esan nahi izan ez nuenean, madarikatu zuen nire ama hila, madarikatu zuen nire aita, eta madarikatu ninduen ni. Erabili zituen hitzak esanahirik gabeak ziren; ulertu egin nituen, baina ez ninduten mindu, ez nelako maite. Eta hark ez ninduen maite. Belauniko jarrarazi ninduen bere harri pilan, zeina, zegokion bezala, eguzkiak egun osoz jotzen zuen toki batean baitzegoen, eskuak buruaren gainetik altxaturik eta esku bakoitzean harri handi bat ezarririk. Ni jarrera horretan edukitzeko asmoa zuen “Sentitzen dut” hitzak esan arte, baina ez nituen esan, ezin izan nituen esan. Gainditu egiten zuen nire borondatea; hitz horiek ezin zitezkeen nire ahotik irten. Ni eta nire aurreko guztiak madarikatzen nekatu zen arte egin nintzen horrela.

Zergatik utziko zuen zigor horrek luzaroko arrasto bat nigan, alde guztietatik gogora ekartzen bazuen atzemailearen eta gatibuaren arteko harremana, nagusiaren eta esklaboaren artekoa, irudikatzen bazituen handia eta txikia, indartsua eta ahula, eta atzealdean lurra, itsasoa eta zerua, eta Eunice nire ondoan zaindari, izaki sumindu eta gizagabe baten eta segidan beste baten itxura hartzen zuela bere ahotik irtetzen zen silaba bakoitzeko; kotoi mehe gaizki ehundurikoz eginiko bere soinekoa zeukan jantzita, gonarekin ongi ez zihoazen kolore eta inprimatuak zituena gerritik gora; ileak, nahasiak eta hainbat hilabetez garbitu gabeak, ilea baino are denbora luzeagoan garbitu ez zen trapu zati zahar batean bilduak? Soinekoa berriro: behinola berria eta garbia izana zen, eta zahartu egin zuen zikinkeriak, baina zikinkeriak berritu zuen berriro, lehen ez zituen ñabardurak emanaz, eta azkenean zikinkeriak dese-

ginaraziko zuen erabat, nahiz ez zen emakume zikina, gauero garbitzen zituen oinak.

Oskarbi zegoen, ez zen euri sasoia, gizon batzuk itsasoan ziren sareak botatzen arrainak harrapatzeko, baina ez zituzten asko atzemango, oskarbi zegoelako; eta haren hiru haur ogia jaten ari ziren, eta ogi mamiekin hartxintzar moduko bolak egiten eta jaurtitzen zizkidaten han belauniko nengoen bitartean, eta barre egiten zidaten; eta zerua hodei bat ere gabe zegoen eta ez zebilen brisarik; euli bat behin eta berriro igarotzen zen hegaz nire aurpegitik, eta batzuetan nire ezpain ertzean jarri; fruitu heldu bat erori zen ogi-arbola batetik, eta ukabil batek gorputzaren alderdi bigun eta haragitsu bat jotzen duenean bezalako hotsa egin zuen. Hori guztia, hori guztia gogoratzen dut: zergatik utziko zuen zigor horrek luzaroko arrasto bat nigan?

Han belauniko nengoen bitartean, lehorreko hiru dortoka ikusi nituen narras sartu-irtenak egiten etxe azpiko espazio txikira, eta maitemindu egin nintzen haiez, hurbil eduki nahi nituen, haiekin bakarrik hitz egin nahi nuen egunero neure bizitzaren gainerako zatian. Nire esperientzia latza amaitu –Ama Euniceri gustatu ez zitzaion modu batean azkendu zen, ez bainuen barkamenik eskatu– eta handik denbora luzera, hiru dortokak hartu eta eremu itxi batean ezarri nituen, modurik izan ez zezaten nahi zutenean etortzeko eta joateko, eta horrela erabat nire mende geratu zen haien biziraupena. Barazki hostoak eta ura eramaten nizkien itsas maskor txikietan. Ederrak iruditzen zitzaizkidan, haien oskolen gris iluna zirkulu hori meheekin, haien lepo luzeak, haien begi juzgurik egiten ez zutenak, haien higiduraren erabakitasun motela. Baina beren oskolean sartzen ziren nik sartzea nahi ez nuenean, eta, deitzen nienean, ez ziren irteten. Zentzabidea ematearren, lokatza hartu nuen erreka zolatik, eta estali egin nuen lepoa irteten zitzaien

zulo txikia, eta lehortzen utzi nuen. Harriz estali nuen bizi ziren tokia, eta egun askotan ahaztu nintzen haietaz. Berriro gogoratu nintzenean, begiratu bat ematera joan nintzen utziak nituen tokira. Orduko hilak ziren guztiak.

NIRE AITAREN NAHIA izan zen ni eskolara bidal nintzaten. Eskaera ezohikoa zen; neskak ez ziren eskolara joaten, Ama Euniceren alabetatik bat ere ez zen eskolara joaten. Ez dut inoiz jakingo zerk eraman zuen aita halako gauza bat egitera. Ez zait beste ezer bururatzen baizik eta horretan gehiegi pentsatu gabe nahi izan zuela halako zerbait niretzat, zeren azken batean zer egin zezakeen hezkuntzak ni bezalako pertsona batengatik? Zer ez nuen izan besterik ezin dut esan; izan nuenarekin bakarrik aldera dezaket, eta nahigabea aurkitu bataren eta bestearen artean. Eta halere, halere... arrazoi harengatik ikusi nuen lehenbiziko aldiz zer hedatzen zen nire etxetik abiatzen zen bidexkaz harago. Eta ondo gogora dezaket, orobat, nire gonaren eta blusaren oihalaren ukia –lakarra, berria zelako–, gona berde bat eta blusa beix bat, uniforme bat, haren koloreek eta estiloak beste edozein tokitako eskolaren, urruneko baten koloreak eta estiloa imitatzen; eta baneramatzan oihal lodi marroiko zapata pare bat eta kotoizko galtzerdi marroi batzuk, aitak ez dakit nondik niretzat esku-ratuak. Eta aipatzea nik ez nekiela nondik etorri ziren gauza horiek, esatea banituela duda batzuk haiei buruz, ez zen besterik baizik egiaz esatea lehenbiziko aldiz janzten nituela zapatak eta galtzerdiak bezalako gauza batzuk, eta haiek oinazetu eta handitu egin zizkidaten oinak, eta azala puslatu eta zauriak eragin, baina behartu ninduten haiek eramatera harik eta nire oinak haietara egin ziren arte, eta egin ere egin ziren nire oinak –nire gorputz osoa–. Goiz hura beste edozein bezalakoa zen, hain ohikoa zen



### *Nire amaren autobiografia*

non intentsua baitzen: eguzkitsua zen toki batzuetan, eta beste batzuetan ez, biek (eguzkitsua, hodeitsua) aski eroso okupatzen zituzten zeruaren alderdi batzuk; bazen hostoen berdea, zuhaitz joritsuetakoren loreen eztanda gorria, anakardiazoeen fruituen horitasun desatsegina, limaren usaina, almendren usaina, nire arnasako kafea, haizeak nire aurpegiaren aurka astintzen zuen Euniceren gona, eta haren hankartetik zetozen usainen kitzikapena, inoiz ahaztuko ez dudana, eta neurea usaintzen dudana guztietan harena gogorarazten didana. Ur gutxi zekarren errekek, eta horregatik ez nuen entzuten ura harri gainetik amiltzen; brisa leuna zen, eta zuhaitzetan ez zen, beraz, adarren xuxurlarik.

Ikusmen, usaimen eta entzumen sentipen horiek izan nituen eskolara bidean bidexkatik behera nindoanean. Errepidera iritsi, eta berriki oinetakoak jantzitako neure oinak ezarri nituenean haren gainean, lehenbiziko aldia zen hori egiten nuela. Horren jakitun nintzen. Harri txikiz eta estu trinkotutako lurrez eginiko errepide bat zen, eta baldarra zen egiten nuen urrats oro; zorua higitu egiten zen, atzerantz lerratzen ziren nire oinak. Errepidea nire aurrean hedatzen zen, eta bihurgune baten ostean ezkutatzen; bihurgune horretarantz jarraitu genuen oinez, eta heldu ginen bihurgunera, eta bihurguneak errepide beraren beste zati bati eman zion bide, eta ondoren, beste bihurgune bat. Azken bihurgunea bukatu baino lehen, heldu ginen nire eskolara. Eraikin txiki bat zen, ate bat eta lau leiho zituen; zorua zurezkoa zen; narrasti txiki bat herrestan zihoan habe batetik teilatuan; hiru eskola mahai luze zeuden bata bestearen atzean lerrokatuak; hiru eskola mahai luzeen aurrean, zurezko mahai handi bat eta aulki bat zeuden; zurezko mahaiaren eta aulkiaren atzeko horman, mapa bat zegoen; hitz hauek zeuden maparen goiko aldean: "BRITANIAR INPERIOA." Hitz horiek izan ziren irakurtzen ikasi nituen lehenbizikoak.

Gela horretan beti mutilak baino ez ziren egoten; zaharra-  
goa izan arte ez nintzen beste neska batzuekin jesarri ikasgela  
batean. Ez nintzen beldur egoera berri horretan: ez nekien zer  
zen beldurra orduan, eta ez dakit zer den orain. Ez nintzen  
beldur, nire ama orduko hila zelako, eta hori delako haur bat  
benetan beldurrarazten duen gauza bakarra; jaio nintzenean,  
hila zen nire ama, eta urte haietan guztietan Eunicerekin bizi  
izan nintzen, nire ama ez zen eta ezin maita nezakeen emaku-  
me batekin, eta nire aita gabe, ez jakinki noiz ikusiko nuen  
berriro; beraz, ez nintzen beldur zer gertatuko zitzaidan egoera  
horretan. (Eta guztiz egia ez bada orduan ez nintzela beldur,  
ez zen hura neure buruari zein zaugarria nintzen onartzen ez  
nion aldi bakarra.)

Orain halako argitasunez eta zorroztasunez hitz egiten badut  
lehenbiziko egun haiei buruz, ez da asmaketan ari naizelako,  
ez luke harritu behar; garai hartan, gauza bakoitza gertatu  
ahala hain argi agertzen zitzaidan gogoan, non zalantzagabea  
begitantzen baitzait orain; orduan ez zuen esanahirik, ez zuen  
testuingururik, artean ere ez nekien zein zen gertaeren bilakaera,  
ez nekien zein ziren haien aurrekariak. Nire irakaslea misiolari  
metodistek hezitako emakume bat zen; afrikar herrikoa zen,  
ikusten nuen hori, eta umiliazioaren eta bere buruarenganako  
ezinikusiaren iturri bat aurkitu zuen horretan, eta jantzi bat  
bezala eramaten zuen etsipena, hala nola estalki bat edo behin  
eta berriro bermatzen zen makila bat, oinordekotza bat, guri  
igaroko ziguna. Berak ez gintuen maite; guk ez genuen bera  
maite; ez genuen elkar maite, ez orduan ez inoiz. Baziren zazpi  
mutil eta ni. Mutilak ere afrikar herrikoak ziren guztiak. Nire  
irakaslea eta mutil horiek begira eta begira egoten zitzaizkidan:  
bekain sarriak nituen; ilea lakarra, sarria eta kizkurra nuen;  
nire begiak elkarrengandik bananduak zeuden eta almindren

## *Nire amaren autobiografia*

formakoak ziren; nire ezpainak handiak eta meheak ziren modu harrigarri batean. Afrikar herrikoa nintzen, baina ez erabat. Nire ama emakume karibea zen eta, niri begiratzen zidatenean, hau ikusten zuten: herri karibea garaitua izan zen, eta gero deuseztatua, lorategi batean haziak bezala egotzia; afrikar herria garaitua izan zen, baina bizirik iraun zuen. Begiratzen zidatenean, herri karibea baino ez zuten ikusten. Oker zeuden, baina ez nien esan.

Aski modu irekian hasi nintzen orduan hitz egiten –neure buruarekin maiz, beste batzuekin guztiz beharrezkoa zenean bakarrik. Eskolan ingelesez hitz egiten genuen –ingeles naturalean, ez kreoleraz– eta geure artean frantses kreoleraz hitz egiten genuen, batere egokitzen jotzen ez zen hizkuntzaz, Frantziako pertsona bat hitz egiteko gauza ez zen eta nekez baizik ulertzen ez zuen hizkuntzaz. Neure ahotsaren soinua gustatzen hasi zitzaidalako hitz egiten nuen neure buruarekin. Bazuen samurtasun bat niretzat, bakardadea arintzen zidan, zeren bakarrik nengoen eta aurpegietan neurea zen zerbait ezagutuko nion jendea nahi nuen ikusi. Izan ere, nor nintzen ni? Ama hilda neukan; aita denbora luzez ikusi gabea nuen.

Oso arin ikasi nuen irakurtzen eta idazten. Nire oroimena, informazioa atxikitzeko nire trebetasuna, xehetasunik txikiena berreskuratzekoa, nork zer eta noiz esan zuen gogoratzekoa, ezohikotzat hartzen zen, hain ezohikotzat non nire irakasleak, zeina hezi baitzuten gauzak onak eta txarrak baino ezin izan zitezkeela pentsatzeko, eta beti iritzi okerra izaten baitzuen halako zerbaiti buruz, gaiztoa nintzela esaten zuen, deabrutua nengoela –eta horretaz zalantzarik ezin egon zitezkeela argi uzteko, nire ama herri karibekoa zela aipatzen zuen berriro.

Nire mundua orduan –isila, biguna, bere zaurgarritasunean landare gisakoa, inoren apeta ahaltsuen mendekoa, egunezkoa,

goizero zerumugan argiaren urratze ahularekin hasten zena eta gau ororen hasieran iluntasunaren bat-bateko agerpenarekin amaitzen— misterioa zen niretzat, eta, aldi berean, plazer handien iturri: oso gustukoa nuen zero grisaren aurpegia, porotsua, pikortsua, bustia, ezin konta ahala goizetan eskolara jarraitzen zidana, ur gezi bigunak jaurtitzen zizkidana behera; zero beraren aurpegia, babesik ematen ez zuen urdin gogor batekoa zenean, eguzki anker batentzako hondo-irudi bat; bero latza, azkenean nire parte bilakatu zena, nire odola bezala; zuhaitz gailenak (haietako batzuen txortenek enbor txikien tamaina zuten), heraberik gabe hazten zirenak, edertasuna tamaina besterik izango ez balitz bezala, eta haiek guztiak bereizteko gauza nintzen begiak itxiz eta hostoek elkarrekin igurztean nolako hotsa egiten zuten entzunez; eta oso gustukoa nuen zedroaren lore zuriak lurrera erortzen hasten ziren momentu hura, entzuten nuen isiltasun batekin erortzen zirenekoa, lore hostoak hasieran ezko oraindik, arrosazko eta zurizko musu leun bat, ondoren egun bat geroago zanpatuak, maskalduak eta arreak, zer bait gogaikarri begiarentzat; eta erreka, urmael txiki bat bilakatu zena egun batean ibilbidea berez aldatu zuenean, haren ertzean esertzen bainintzen ni, eta bertatik ikusten txori familiak, eta igelak beren arrautzak erruten, eta zerua beltzetik urdinera eta urdinetik beltzera mudatzen, eta euria bai urmaelaz haraindiko itsasoan jausten baina ez itsasoaz harago zegoen mendian. Toki horretan eserita hasi nintzen lehenbiziko aldiz neure amarekin ametsetan; loak hartua ninduen nire inguruko lurra estaltzen zuten harrien gainean, nire gorputz txikia lumazkoa balitz bezala joanez gainazal horretan barna. Neure ama ikusten nuen eskailera batean behera jaisten. Soineko luze zuri bat zeraman, haren azpildura juxtu orpoen gainetik erortzen, eta hura zen erakusten zuen bakarra, orpoak bakarrik; bazetorren behera

### *Nire amaren autobiografia*

eta behera, baina ez zen beste ezer ageri. Orpoak bakarrik, eta soinekoaren azpildura. Hasieran, gehiago ikusteko irrikaz nengoen, baina ondoren aski iritzi nion haren orpoak niganantz jaisten ikusteari. Esnatu nintzenezan, jadanik ez nintzen lokartu baino lehen nintzen haur bera. Irrikaz nengoen aita ikusteko eta etengabe haren presentzian egoteko.

GOGORATZEKO MODUKO HASIERA berezirik izan ez zuen egun batean irakatsi zidaten zein ziren gutun arrunt bat idazteko oinarriak. Gutunak sei atal ditu: igorlearen helbidea, data, hartzailearen helbidea, idazpurua edo agurra, gutunaren gorputza, eta gutunaren itxiera. Gauza jakina da nik okupatzea espero zen mailan –emakume baten eta pobre baten mailan– zegoen pertsona batek ez zuela inolako beharrizanik izango gutun bat idazteko, baina asetze-sentipena neurrigabea izan bide zen niri hori, gutun bat idaztea, irakastearekin zerikusia izandako gutzientzat. Jotzen ninduten eta hitz gogorak esaten zizkidaten huts bat egiten nuenean. Axola ez zitzaizkidan kexak, ideiak edo pozak idazten zituzten pertsonen gutunak kopiaetzea ez zen orduan neure onetik ateratzen ninduen zerbait –gazteegia nintzen ulertzeko hantukeria edozein ganibet bezain arma arriskutsua izan daitekeela; neure gutunak idatzi nahi izatea besterik ez zuen horrek ekarri, gutun horietan idatziko bainuen nolako sentipenak nituen neure bizitzari buruz, berau zazpi urterekin iruditzen zitzaidanaren arabera. Neure aitari idazten hasi nintzen. Idatzi nuen, “Nire aita maitea,” kaligrafia eder apain batean, jipoi en eta hitz gogorren fruitu zen kaligrafia batean. Esaten nion Eunicek gaizki tratatzen ninduela hitzez eta egitez, eta beraren falta nuela, eta oso maite nuela. Behin eta berriro idatzi nuen gauza bera. Ez nuen xehetasunik ematen. Animalia

*Jamaica Kincaid*

txiki zauritu baten intziri errukarria baino ez zen: “Nire aita maitea, zu zara munduan geratzen zaidan pertsona bakarra, ez nau inork maite, zuk bakarrik maita nazakezu, hitzez jipoitzen naute, makilaz jipoitzen naute, harrika jipoitzen naute, beste ezer baino maiteago zaitut zu, zuk bakarrik salba nazakezu.” Hitz horiek ez ziren inondik ere nire aitarentzat, baizik eta orpoak bakarrik ikusi ahal nizkion pertsonarentzat. Gaua joan eta gaua etorri, haren orpoak ikusten nituen, orpoak bakarrik behera jaisten nirekin elkartzeko, behera jaisten nirekin betiko elkartzeko.

Aitari bidaltzeko batere asmorik gabe idatzi nituen gutun horiek. Ez nekien nola egin hori; nola bidali gutunak, alegia. Halako eran tolesten nituen non, hautsi balira, zortzi karratu txiki egingo baitziren. Ez zegoen esanahi misteriozurik horretan; nire eskolako atearen kanpoaldean harri handi baten azpian diskretukiago sartzeko baino ez nuen hala egiten. Eguneror, joaten nintzenean, nire aitari idatzitako gutun bat uzten nuen harri azpian. Gutun horiek isilean idazten nituen, jolas ordutzat ematen ziguten denbora tarte laburrean, edo, beste inor ohartu gabe, neure lana amaiturik neukan denboran. Egiten jardun behar nuen lanean murgildua nengoelako itxurak eginez, gutun bat idazten nion aitari.

Laguntza eske eginiko oihu txiki horrek ez zidan berehalako lasaibiderik eman. Ezagutzen nuen neure oinazea, baina hura arindu zitekeela –nire bizitza alda zitekeela, nire inguruabarrak alda zitezkeela– ez zitzaidan bururatu.

Nire gutunek ez zuten isilpean iraun. Roman izeneko mutiko batek ikusi ninduen nola ipintzen nituen gutunak beren isilpeko tokian, eta, nire ezkutuan, atera egin zituen. Ez zuen izan enpatiarik ez errukirik; ahulak babesteko sen oro ezereztua zegoen berarengan. Gure irakasleari eraman zizkion

## *Nire amaren autobiografia*

nire gutunak. Nire aitarentzako gutunetan esana nuen “Guztiek gorrotatzen naute, zuk bakarrik maite nauzu”, baina egiaz ez zen nire asmoa gutun horiek neure aitari bidaltzea, eta benetan ez ziren nire aitarentzat; orduan galdetu balidate benetan sentitzen ote nuen guztiek gorrotatzen nindutela, nire aitak bakarrik maite ninduela, ez nukeen jakingo nola erantzun. Baina nire irakaslearen erreakzioa, nire gutunek, zirrimarra txiki horiek, eragina, pizgarri gertatu zitzaidan. Sinetsi zuen aipatzen nuen “guztiek” horrekin berari buruz ari nintzela, eta berari buruz bakarrik. Esan zuen nire hitzak gezurra zirela, difamatzailerak, lotsatua zegoela nitaz, ez zela nire beldur. Hori guztia eskolako gainerako ikasleen aurrean esan zidan nire irakasleak. Haiek pentsatu zuten umiliatua nengoela, eta poztu egin ziren ni hain apaldua ikusteaz. Ni ez nintzen batere umiliatua sentitu. Beste zerbait izan zen nik hauteman nuena. Haren hortzak okerrak eta horiak zirela ikusi nuen, eta neure buruari galdetu nion nola heldu ziren horretara. Ilargi erdi itxurako izerdi orban handiek zikintzen zioten soinekoaren galtzarbe aldea, eta neure buruari galdetu nion, emakume egitearekin, ni ere halako ugaritasunez izerdituko nintzen eta nolakoa izango zen usaina. Haren sorbaldaren ostean, horman, armiarma eme handi bat zebilen bere arrautza poltsa garraiatzen, eta gogoa izan nuen eskua luzatzeko eta bertan zanpatzeko, neure buruari galdetzen niolako hura ez ote zen aurreko gauean, lo nengoen bitartean, nire ahoaren ertzetik listua xurgatu eta hiru ziztada txiki eta mingarri utzi zizkidan armiarmaren espezie berekoa edo haren familiakoa. Lanbroa ari zuen kanpoan, haren soinua entzuten nuen teilatu galbanizatuan.

Nire aitari bidali zizkion nire gutunak, niri erakustearren garbi zuela kontzientzia. Esan zuen gaizki ulertu nituela beraren errietak, niganako maitasunez eginak, eta gorrotoaren adieraz-

pidetzat hartu nituela, eta horrek erakusten zuela harrokeria bekatuaren errudun nintzela. Eta esan zuen espero zuela ikasiko nuela antzematen zein desberdintasun dagoen bi hauen artean: maitasuna eta gorrotoa. Gaurko eguna arte, saiatu naiz bien arteko desberdintasuna antzematen, eta ez dut lortzen, aurpegi berdin-berdina izaten dutelako askotan. Hori esan zuenean, aurpegira begiratu nion ea antzematen nion egia ote zen maite ninduela, eta ea ikusten nuen haren hitzak, hainbestetan kolpe gogor sail bat ziruditenak, egiaz maitasunaren adierazpide ote ziren. Haren aurpegia ez zitzaidan maitasunezkoa iruditu orduan, baina baliteke oker egotea –beharbada gazteegia nintzen epaitzeko, gazteegia jakiteko.

Ez nintzen berehala ohartu zer gertatua zen, zer egina nuen: oharkabean egin arren, helburu hori izan ez arren, neure egoera aldarazia nuen hitz batzuk erabiliz; beharbada salbatu ere egina nuen neure bizitza. Neure egoeraz hitz egitea, neure buruarekin nahiz beste batzuekin, harrezkero beti egingo nuen zerbait da. Era horretan heldu nintzen neure buruaz gehiago ezin zen punturaino kontzientea izatera, hain interesatua neure beharrianetan, hain interesatua haiei erantzuten, neure kexen jakitun, neure plazeren jakitun. Jomugarik gabeko min adierazpen haurkarazko harez geroztik, aldatu egin zen nire bizitza, eta gogoan hartu nuen hori.

ESPETXEZAIN UNIFORMEA soinean zuela etorri zen aita nire bila. Horrek ez zuen esanahirik berarentzat, garrantzigabea zen. St. Joseph herrixkatik zetorren Roseaura, polizia lanean aritua baitzen han. Ez zidaten esan egun hartan helduko zela; ez nengoen haren zain. Eskolatik itzuli, eta han ikusi nuen, bizi nintzen etxerako errepidearen azken bihurgunean. Harritu egin nin-